




# BARDOZE Urgorri



Distantzia <b>3,5 km</b>	Desnibela <b>150 m</b>	Iraupena <b>1h30</b>	Tipologia <b>Itzulia</b>	Zedarriak <b>PR seinaleak</b>
-----------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	----------------------------------

A64 autobideko 4. irteeratik (Ahurti-Beskoitzeko irteera), segi Bardozera eta Bidaxunera buruz (D936). Bardozera heltzean (biribilgunea), utzi herri zentroa eskuinean (Herriko Etxeko plaza) eta segi zuzen Bidaxunera buruz 200 m-tan, eta gero segi ezker Samatzeko eta Gixuneko bidean. Igan patarra; Bardozeko irteera-seinalea baino 100 m urrunago itzul ezker Miremونت muinoko aparkalekura heltzeko (ur-dorrea).

GPS datuak : **UTM : 644670 - 4815845 Lat/Long : 43.48151/-1.21107**

**B**ardoze herrian bada ibilbide bat kaskoen eta Urgorri ibarreko oihanean artean, ikuspegi zabalez eta erreka ttipi intimoz gozatzeko. Ibilaldi laburra, tarteka moto-trial gidarien akrobaziak ikus daitezke; Miremонт pentokaren ikuspegi zoragarria da bereziki interesgarria. Ur-dorre kaskotik (denak igan daitezke bertara) Pirinioak ikus daitezke; orientazio mahai batzuek paisaia zehazten dute. Aroa garbi delarik (ahalaz egunaren lehen orenetan), mendi kaskoak ikusten ahalko dituzu 150 km-tan. Ikusiko duzu ere Bardoze Ipar Euskal Herriko eta Gaskoiniako paisaien bidegurutzean dela, alde batetik mendixka berdeak ageri dira manex ardiekin eta Larrun mendia gibelean, eta beste aldetik, Aturriko ordokia, Chalosseko goxotasuna eta Landetako oihan zabala.



## 1. ZATIA > Miremонт pentokatik ibarxka zolaraino

UTM : 644670 - 4815845

Eman bizkarra ur-dorreari eta jauts ezker karrika nagusitik. 200 m-ra Peruko bidexkaren bidegurutzean, utzi mundruna eta jauts eskuin xendra harriztatuan. Ibarxka batara jausten da. Zuzen, lehen pentzearen puntan (aska), egizu itzulingurua eskuin eta segidan ezker eta segi xendra belartsuan pentze bazterretik (seinale horiak). Bidexka moto-trial zelai baten bazterretik iragaten da eta ibarxkaren zolaraino joaten (malda zuta).

## 2. ZATIA > Urgorri ibarxkan

UTM : 644061 - 4816438

Malda zutaren behean, zoaz segidan eskuin erreka baten gainetik iragaten den zurezko zubixkatik. Joan zaituz uraren ezkerreko aldetik arbola hostotsuen oihanean barna, eta eskuinera pasa zaituz 100 m gorago. Bat-batean bidexka eskuin igaten da eta bigarren trial gune batara heltzen. Hor, itzul zaituz ezker (blokeen artetik pasa), eta jauts 30 m hesiaren bazterretik, eta hartu eskuin argi-guneko beheko parteko bidexkatik. Hirugarren trial guneko arrokak aitzin, itzul zaituz ezker haritzondoan azpitik iragaten den bidexka atseginetik. Berriz errekarra helduko zara, eskuin, beheko aldean.



## 3. ZATIA > Errekatik ball-trap gunera

UTM : 644409 - 4816381

Zeharka ezazu erreka metalezko zubixkatik eta igan errekarren beste bazterreko xendra. Malda erditsutan, itzul eskuin xendra horizontalean (ufa!), bide batek luzatzen du xendra. Ondoko bidegurutzean, itzul arunt ezker goera luzatzeko oihanean barna. Irgan xeila iraganbidetik, eta bide harriztatu zabalera helduko zara (laborantzaterpea). Eskuineko bidetik joan zaituz, tentsio handiko linearen azpitik iraganez.

## 4. ZATIA > Ball-trap gunetik Miremонт mendixkara

UTM : 644637 - 4816465

Ball-trap klubeko eraikinean segi zuzen igaten den bide zabaletik. Gainean, D253 errepidearen bazterretik ibil zaituz eskuinera buruz (kasu eginez), ahalaz eskuineko bazterreko belarretik. Bidegurutzean zoaz eskuin Miremонт bidera, eta ur-dorreko aparkalekura itzuliko zara.



## INTERESGUNEAK

### ❖ Miremонт pentokako ikuspegia (0 km)

Miremонт pentokako ur-dorrean eskailerak badira kanpoko aldetik. Kaskoan, ikuspegia espantagarria da zerua garbia delarik. Pirinio Garaietatik itsasbaztererra doa: Midi de Bigorre, Midi d'Ossau, Auñamendi eta Orhi dira nagusi. UTM : 644670 - 4815845

### ❖ Ibarxka hezeetako landareak (1,2 km)

Ibarxka zola interesgarria da landare mota franko baititu, lurra hezea du urte osoan eta lurrustelez aberats da. Espezie ugari argia partekatzen dute: udaberriko loreak, hurritzek, altzek, gorostiek, robiniek, iratze arruntek edo orein-mihiek. UTM : 644105 - 4816438

### ❖ Bardozeko ondarea (1,4 km-tan ibilbidetik kanpo)

Ibilaldia aitzin edo ondokit, gomen datzen dizugu Bardozeko zentroa bisitatzea. Bada pilota plaza, eliza eta parkea, baina bereziki Salha jauregia. Salhatarren etxe ederra zen (XV. mendea), bi dorre gehitu ziren, burges-etxe izan zen ondokit, udaleku, eta 1980az geroztik, Herriko Etxe. UTM : 645293 - 4815131

## ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- 300 m-tan D253 errepide bazterrean, egon errepidearen eskuineko bazterrean  
UTM : 645039 - 4816269

- Ibilaldi hau ez da gomendatua uso ehizaren garaian, 10/01etik 11/15era

## EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Miremонтenteko pentoka, piknika mahaiak ura, komunak, haurrendako jokoak  
UTM : 644670 - 4815845

# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurutetarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurutetarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guziren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzema bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauek: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinalea errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarriztuetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarri jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa: Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza  
+33(0)5 59 56 24 65
- BIDAXUNE : pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49
- HAZPARNE : Donibane plaza  
+33(0)5 59 29 62 02
- BASTIDA : Pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoarekin.